



2011KO IRAILAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako irailaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpi terdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada eta Juan Manuel Serna Portugal.

Felix Urkola Iriarte zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2011ko uztailaren 28an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 2010EKO KONTU OROKORRA.-

2010 ekitaldiko Kontu Orokorra, Kontuetarako Batzorde Bereziak 2011ko uztailaren 14an egindako bilkuran aztertu eta informatua izan zen.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2011ko uztailaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2010 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

Kontu Orokor honek udalaren 2010eko Kontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal el-karte anonimoaren 2010eko urteko kontuak hartzen ditu barne.



IV.- KIROLDEGIKO BIRMOLDAKETAREN 4. FASEKO LANEN 5. ETA 6. OBRA-EGIAZTAGIRIAK.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek 4. faseko lanen 5. eta 6. obra-egiaztagiriaz luzatu dituzte. 4. faseko 5. obra egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI MILA LAUEHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA EURO ETA LAUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMOTakoa (179.451,93 €) da eta 6. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO eta HIRUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (234.987,75 €). Lan hauek INGESLAN, S.L.U. enpresa ari da burutzen. 6. obra-egiaztagiri honek laugarren faseko lehen zatiari amaiera ematen dio.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen 4. faseko 5. eta 6. obra-egiaztagiriak onartzea erabakitzen du.

V.- EJEKUTIBA BIDEZKO DIRUBILKETARAKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN HITZARMENA.-

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 2.2 artikuluan xedatzen duenez, aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera udal ogasunek zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar dituzten tributuo eta zenbatekoak kobratzeko, ogasun horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ogasunerako lege ezarritan dauden eskumen eta eskubideak izango dituzte eta, hala behar denean, dagozkien administrazio prozeduren arabera jardungo dute.

Halaber, aipatu Foru Arauak 8 artikuluan dio Udalak eta Foru Diputazioa lankidetzan arituko direla hitzarmen egokia izenpetuz tributuen kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari dagozkien guztietan.

Bere aldetik, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duenak, 3.3 artikuluan xedatzen duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuko zergabilketa organoek beren gain hartu ahal izango dute beste herri administrazio batzuen diruen bilketaren kudeaketa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren hitzarmenen bitartez.

Araudi horren babesean, Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30eko bilera erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta interesatuta dagoen Udal bakoitzaren artean sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmenaren eredu onartzea, hain zuzen, Udalak berezkoak dituen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko.

Horrenbestez, aipatu hitzarmenaren edukia Udalarentzat interesgarritzat jotzen duenez, Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak, Ogasun Batzordearen proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako hau, **ERABAKI DU**

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30ean onartutako lankidetzaren hitzarmena sinatzea. Hitzarmen horren bitartez, Gipuzkoako Foru



Aldundiak bere gain hartuko du Udalaren zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko ardura.

BIGARRENA: Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Lazkaoko Udalaren izenean eta ordezkartzan izenpetu dezan.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez.

VI.- ORDENANTZA FISKALAK.-

Alkateak esaten du gaia gehiago aztertu ahal izateko egon diren atzeratze eskariei erantzunez gaia mahai gainean utziko dela, eta hurrengo osoko bilkuran sartu dela berriro.

Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, ontzat ematen du gaia mahai gainean uztea.

VII.- TAXIEN HIRI-TARIFEN ALDAKETA.-

Alkateak esaten du puntu honetan ere, aurreko puntuan bezalaxe, eta gehiago aztertu ahal izateko egon diren atzeratze eskariei erantzunez gaia mahai gainean uztea planteatzen dela, eta hurrengo osoko bilkuran sartuko dela berriro.

Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, ontzat ematen du gaia mahai gainean uztea.

VIII.- LAZKAOKO ERREPRESALIATU POLITIKOEN SENITARTEKOEK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Alkateak horretarako baimena eman ondoren, mozioa aurkeztu dutenek mozioa irakurtzen dute.

Mozioak honela dio:

"Eskubide guztien jabe euskal preso eta iheslariak etxera!"

Euskal Herrian dugun gatazka politikoaren ondorioz, ehundaka dira etxetik urrun bizi diren errepresaliatu politikoak. Espetxean nahiz ihesean asko egoera jasangaitzetan bizi dira. Lazkaon ere gatazkaren gordintasuna bere osotasunean pairatzen dugu. Gure senideak, Xabier, Belen, Anitz eta Garikoitzen egoerak benetan kezkatzen gaitu.

Xabier Arrutik 30 urte baino gehiago daramatza etxetik milaka kilometrotara herri-
ra itzuli ezinik.

Belen Gonzalezek oso gaixotasun larria dauka eta etxean preso dute neurri zorrotzekin.

Anitz Eskisabel preso dute Salamankan, Topaseko expetxean etxetik 450 kilometrotara.



Garikoitz Mujika preso dute Alacanten, Foncalent-eko espetxean etxetik 800 kilometrotara.

Urruntasunak presoengan zigor erantsia izateaz gain senide eta lagunengan ere sekulako ondorioak ditu. Lazkaotar asko gara astebururo milaka kilometro egiten ditugunak gure senide eta lagunak ikusteko. Dispertsioak, senide eta lagunak bizia errepidean arriskuan jartzeaz gain, gastu ekonomiko handiak ditu. Guzti honegatik, amnistiarako bidean, gatazka politikoak eragindako preso eta iheslari politiko bat bera ere egon ez dadin, lehen urrats moduan Lazkaoko udalari honako neurri hauekin bat egitea eskatzen diogu:

- Euskal preso guztiak Euskal Herrira, dispertsioarekin amaituz.
- Gaixotasun larriak dituzten presoak askatu.
- Epaituak izateko zain dauden preso prebentiboei behin behineko askatasuna eman.
- Legeak ezarritakoak beteak dituzten presoak askatu.
- Legeak jasotzen dituen espetxe onurak aplikatu, murrizketarik eta arbitrariotasunik gabe.
- Zigorra betetzeko muga 40 urtetan ezartzen duen legedia indargabetu.
- Udaletxeko balkoian "Euskal Preso eta Iheslari Politikoak Etxera" dihoen ikurra ipintzea."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du mozio bat gehiago dela udal honetan aurkeztu izan diren askotarikoak, eta aurreko hauek aurkeztu izan diren ildo berekoak. Esaten du preso politikoei buruz hitzegiten duela mozioak eta bere iritziz delikuentek direla, terroristak, epaituak izan direnak eta jarri zaien zigorra betetzen ari dira. Hitzegin daiteke espetxe onurei lortzeari buruz, baina horretarako espetxe onurak eskatu egin behar dira, ez badira eskatzen ezin daitezke lortu. Baita ere esaten du berak espero duena E.T.A.ren amaiera eskatuko duen mozio bat dela eta orduan urrats guztiak askozaz errazagoak izango direla, alderdi batetik eta baita ere, egia da, bestetik herri honetan berrogei urte hauetan egon den izuaren ondorioak konpontzeko, eta mina alderdi guztietan dago baina mozio honek alderdi batetik bakarrik kezkatzen da arazoa nagusiaz ahazten da, mehatxatzen jarraitzen duen erakunde terrorista bat dagoela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du honelako mozioak behin baino gehiagotan eztabaidatu direla lehen ere eta jarrera hartuta dutela. Gehitzen du 2006ko urriaren 6an Eusko Legebiltzarrean onartutako 6 puntutan jasotzen dela beraien postura, eta bertan presoek dituzten eskubideak eta baita ere herritar orok ditugun eskubideak kontutan izan behar direla esaten dela. Esaten du baita ere Nazioen Mundua hemen Lazkaon bildu zenean Lazkaoko alderdi guztiak biltzea zela helburua, baita PSOE eta PP ere, berak esan zuela autodeterminazioaren inguruan eztabaida irekitzerakoan beharrezkoa izango zela baita ere azken 30 urteetako gorabeheren inguruan naturalki hizketan hastea. Esaten du baita ere orduan hona izan direla Gernikako Akordioa, presoaren posizionamendua eta hori positiboki baloratzen dutela baina benetan eskuartean daukaten arazo hau bere osotasunean hartu behar dutela eta beraz kontutan hartu behar dela baita ere azken 30 urtetan hemen zinegotzi batzuei autoa erre izan zaiela eta honen aurrean gaitzespenak egon izan bazieren ere denek ez zuten gaitzetsi; baita ere bi ertzainei, herriko semeei, kotxeak erre zitzaizkien; baita ere preso dagoen batek Lazkaoko zinegotzi bati buruzko informazioa eman zuen honen aurkako atentatua egiteko eta orain bizkartzainekin dabil; eta gehitzen du guzti honetaz hitzeging behar dela uste dutela benetan aurrerakako urratsak eman nahi badira herri



mailan eta beraiek prest egongo direla behar den denbora guztia eskeintzeko. Eta mozioaren azken puntuari dagokionean esaten du udal honetan orain dela hogeita bi urte edo, arautegi bat onartu zela osoko bilkuran eta arautegi horren arabera udaletxean kartelik ez jartzeko konpromezua hartuta dagoela. Eta bukatzen du esanez guzti honengatik mozioari ezezkoa emango diotela.

Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du mozioan eskatzen direnak oinarrizko eskubi-deak direla eta hauek Gernikako Akordioan onartutako eskubide berak direla eta ez dutela inolako eragozpenik ikusten mozioa onartzeko. Eta baita ere prest daudela gauza hauetaz mahai baten inguruan hitzegiteko.

Gaiaren inguruan eztabaidatu ondoren mozioa bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (Bildu) eta aurkako 5 botuz (EAJ, PSE-EE) mozioa onartu egiten du.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Serna zinegotziak (PSE-EE) aurreko puntuan izandako eztabaidaren inguruan eztabaida egin ahal izatea eskertzekoa dela esaten du; eta bestalde udal aldizkariaren inguruan esaten du udal aldizkaria jaso duenean izandako harridura jarri nahiko lukeela agerian, gazteleraz ez dagoelako ia ezer.

Alkateak erantzuten dio esanez aldizkaria egiterakoan aurreko aldizkarietako ildo bera jarraitu nahi izan dela, hau da, ehundik laurogei euskaraz eta ehundik hogeitaz gazteleraz, eta aldizkaria egiten duen enpresari hala mantentzeko eskatu zitzaizela.

Jendartetik Serna zinegotziak mozioaren puntuan izandako diskurtsoaren inguruko iritzia ematen da eta honek erantzun egiten dio.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hogeita bederatzirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

